



Usturbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO IRAILAREN 30EAN
GOIZEKO 10:00ETAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezin-etorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- 2014/09/09KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2014ko irailaren 9ko akta aho batez onartu dute.

2.- ONDAREGI XXI, S.L. ENPRESAK ATALLU INDUSTRIALDEKO 1. LURSAILEAN BIRMOLDATUTAKO PABILOI ZAHARRARI ETA ERAIKITAKO 2. ETA 3. PABILOIEI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2012-0202

ONDAREGI XXI, S.L. enpresak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Atallu industrialdeko 1. lursailean birmoldatutako pabiloi zaharraren eta eraikitako 2. eta 3. pabiloien lehen erabilera baimena eskatzen du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko ekainaren 12an egindako bilkuran, ONDAREGI XXI, S.L. enpresari, Atallu industrialdeko 1. lursaileko eraikinaren barruan birmoldaketa lanak egiteko udal baimena ematea erabaki zuen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko urriaren 9an egindako bilkuran, ONDAREGI XXI, S.L. enpresari, Atallu industrialdeko 1. lursailean 2. pabiloia eraikitzeke udal baimena ematea erabaki zuen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, ONDAREGI XXI, S.L. enpresari, Atallu industrialdeko 1. lursailean 3. pabiloia eraikitzeke udal baimena ematea erabaki zuen.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, ONDAREGI XXI, S.L. enpresak, obra amaierako ziurtagiria eta beharrezko gainontzeko dokumentazioa aurkeztearekin batera, birmoldatutako pabiloi zaharraren eta eraikitako 2. eta 3. pabiloien lehen erabilera baimena eskatu du.



Usurbilgo Udala



Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkunek, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2014ko irailaren 18an, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreaki
OBRA NAGUSIAK

**ATALLUKO 1. LURSAILEAN ERAIKIN INDUSTRIALA BIRMOLDATZEKO
LEHEN ERABILERA BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA**

KOKAPENA: 1. LURSAILA ATALLU INDUSTRIALDEA, Usurbil
ESKAERA DATA; 2014ko apirilaren 9a.
ESKATZAILEA; ONDAREGI XXI S.L.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2012-0202

AURREKARIAK

(ikus EE2012_04_19, EE2012_04_28 eta EE2013_04_23)

- 2014ko martxoaren 6an udal arkitektoak txostena idatzi zuen, honakoak falta zirela gaineratuz:
- *“IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA: Bertaratzean ikusi da eraikinak ez dituela irisgarritasun araudiak ezarritako baldintzak betetzen bulego pabiloian. Ezinbestean 68/2000 Dekretuak ezartzen dituen honakoak bete beharko dira:*
 - *5.2.1. Korridoreak (III. Eranskina): bulego pabiloien behe solairuko korridoreak 1,5 m-ko zabalera gutxiengoa izan beharko du.*
 - *3.12 Komunak (II. Eranskina – III. Eranskineko 7. artikulua bertara bideratzen du): bulego pabiloien behe solairuan bi komun egokitu ezarri dira, bata emakumezkoentzat eta bestea gizonzkoentzat. Biek ala biek, honakoak bete beharko dute:*
 - *3.12.1. Komun-ontzi egokituaren kabinaren ezaugarriak.*
 1. *Mugikortasun urria duten pertsonentzat egokitutako komun-ontziaren kabina irisgarritasunaren nazioarteko zeinuarekin seinaleztatu da (atean ipinita).*
 2. *Zorutik 0,4 m-ko altueran alarma-sistema bat instalatu da, kordoi-motakoa edo antzekoa.*
 3. *Ispiluen beheko ertz 90 cm-ko altueran egongo da gehienez ere eta okerdura txiki batekin ipiniko da beheko palmok ikusi ahal izan daitezen.*
 4. *Komunea instalatzen diren esekitoki, toaila esukarri, apal edo antzekoen kasuan, elementu bakoitzeko bat gutxienez 0,9 m-tik 1,2ra bitarteko altueran jarriko da.*
 - *Orohar irisgarritasun araudiak ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.*
- *IGOGAILUA: Igogailu instalakuntzaren abiarazte ziurtagiria aurkeztu beharko da, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak zigilatua.*
- *GALDARAK: Bertaratzen ikusi da, bulego eraikinaren behe solairuan eta lehen solairuan galdara bana ezarri dela. Bien instalakuntza ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, dagokion organu eskudunak ikus-onetsiak. “*
- 2014ko apirilaren 9an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2014ko uztailaren 7an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.

Erlazionatua: HZ.07/2012-0203 Atalluko 1. lursailen altzairua komertzializatzeko jardura proiektua aurkeztu zuen.



Usurbilgo Udala



TXOSTENA

Joaquín Salanueva Etayo jaunak, ONDAREGI XXI S.L. enpresaren izenean, ATALLU Industrialdeko 1. lursailean pabiloi zaharraren birmoldaketa eta 2. eta 3. pabiloien egikaritzaren lehen erabilera baimen eskaera eginaz, dokumentazio gehigarria aurkeztu du. Eskaera orriarekin batera aurkeztu dira: igogailua abiaraztearen ziurtagiria, instalazio termikoaren ziurtagiriak, obra amaierako memoria, irisgarritasuna betetzearen justifikazioa eta argazkiak, obra amaierako likidazioa, eraikin industrialetan suteen aurkako erreglamenduaren betetzea, obra berriko eskrituren zirriborroa, Industriako boletina Tentsio Baxukoa, IBI-n alta, Industriako ur edangarriaren boletina, suteen aurkako instalakuntzaren ziurtagiria eta planuak.

Dokumentazio aztertu ostean esan daiteke, Udalak eskatutako baldintzak bete direla eta orohar, lehen erabilera baimena eman daitekeela, beti ere, ohartaraziz irisgarritasun araudia nahiz suteen aurkako araudia bete eta baldintzak mantendu beharko direla (gainontzeko araudiarekin batean).

Usurbilen, 2014ko irailaren 18an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Eiguren Azkune

Eskaria kontutan hartuz, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: ONDAREGI XXI, S.L. enpresak Atallu industrialdeko 1. lursailean birmoldatutako pabiloi zaharrari eta eraikitako 2. eta 3. pabiloiei lehen erabilera baimena ematea .

BIGARRENA: Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari eta Errenta eta Ondare Teknikariari ematea, beharrezkoa balitz ordaindu beharreko zerga eta tasetan dagokion kitapena egin dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

3.- THYSSENKRUPP MATERIALS IBERICA, S.A. ENPRESARI ATALLU INDUSTRIALDEKO ATALLU KALEA 2-4AN ALTZAIRUA KOMERTZIALIZATZEKO EZARRITAKO JARDUERAREN IREKIERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.07/2012-0203

THYSSENKRUPP MATERIALS IBERICA, S.A. enpresak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an altzairua komertzializatzeke ezarritako jardueraren irekiera baimena eskatzen du.



Usurbilgo Udala



AURREKARIAK

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2012-0203
ESKATZAILEA: THYSSENKRUPP MATERIALS IBERICA, S.A.
JARDUERA MOTA: Altzairua komertzializatzeko jarduera
NON KOKATUA: Atallu kalea, 2 – 4 / Atallu industrialdea

Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 237. zenbakia, 2012ko abenduak 13). Jendaurreko epealdian ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2013ko urtarrilaren 23an helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena 292 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera.

Tokiko Gobernu Batzarrak ere, 2013ko urtarrilaren 29an aldeko informea eman zuen.

Ondoren, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Euskadiko Lege Orokorrak aurreikusten duen moduan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak aipatu jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri zituen.

2013ko martxoaren 26an, Tokiko Gobernu Batzarrak, Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an altzairua komertzializatzeko jarduera ezartzeko udal baimena eman zion THYSSENKRUPP MATERIALS IBERICA, S.A. enpresari.

IREKIERA BAIMENA

Orain berriz, obra amaierako ziurtagiria eta gainontzeko dokumentazioa aurkeztearekin batera, ezarritako jardueraren irekiera baimena eskatzen du.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkunek, aldeko txostena eman du 2014ko irailaren 18an. Txostenak honela dio hitzez hitz:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreari
JARDUERA SAILKATUAK
ATALLUKO 1. PARTZELAN ALTZAIRUA KOMERTZIALIZATZEKO
JARDUERA IREKIERARI TXOSTENA

ESKATZAILEA: THYSSENKRUPP MATERIALS IBERICA, S.A.
ESKAERA: Atallu 1. partzelan altzairua komertzializatzeko jarduerari irekiera baimena
KOKAPENA: ATALLU 1. partzela, Usurbil
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.07/2012-0203 JARDUERA SAILKATUA
PEM= 22.936,98EURO

AURREKARIAK

(ikus EE2014_07_03 txostenean datozenak)



Usurbilgo Udala



- 2014ko martxoaren 6an udal arkitektoak txostena idatzi zuen, honakoa baldintzak ezarriaz (2013ko martxoaren 13an jakinarazia):

“Goian aipatutakoari jarraiki, irekiera baimena lortzeko honakoa aurkeztu beharko dira:

- *Suteen aurkako babeserako neurrien instalazioa abian jar daitekeela egiaztatzeko akta, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak zigilatua.*
- *Jarduera ezartzearen planuak bat etorri beharko dute egikaritu den pabiloiarekin. Zentzu horretan aipatutako baldintzak bete beharko dira.*

Orohar, jarduera baimenean ezarritako baldintzak bete beharko dira eta irekiera baimena jaso aurretik ezinbestean izan beharko da Lehen Okupazio baimena. “

- 2014ko ekainaren 3an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen Irekiera baimena eskatuz.

Erlazionatuak (HZ.04/2012-0202): TGB-k obra baimena; 2012-06-12/2012-10-09/2012-11-30

TXOSTENA

Antoni Segui jaunak, THYSSENKRUPP S.A. enpresaren izenean, Usurbilo Atallu 1. lursailean altzairua komertzializatzeko jardueraren irekiera baimena eskatu du, horretarako jardueraren dokumentazio gehigarria aurkeztuz. Orain aurkeztu den dokumentazioa da, eskaera orriarekin batera; Suteen aurkako babeserako neurrien instalazioa abian jar daitekeela egiaztatzeko akta, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak zigilatua eta instalakuntzaren planu eguneratua, teknikari gaituak izenpetua.

Dokumentazio aztertu ostean esan daiteke, Udalak eskatutako baldintzak bete direla eta orohar, irekiera baimena eman daitekeela, beti ere, aurrez, 3/98 Ingurugiro Legeari jarraituz ezinbestean lehen okupazio baimena jaso beharko delarik (HZ.04/2012-0202).

Usurbilen, 2014ko irailak 18

UDAL ARKITEKTOA

Izta.: Ekhiñe Eiguren Azkune

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko irailaren 30ean, ONDAREGI XXI, S.L. enpresak, Atallu industrialdeko 1. lursailean egindako eraikin industrialari (Atallu kalea, 2-4) lehen erabilera baimena ematea erabaki du.

Eskaria kontutan hartuz eta udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: THYSSENKRUPP MATERIALS IBERICA, S.A. enpresari Atallu industrialdeko Atallu kalea 2-4an altzairua komertzializatzeko ezarritako jardueraren IREKIERA baimena ematea.



Usurbilgo Udala



BIGARRENA: Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari ematea, beharrezkoa balitz ordaindu beharreko zerga eta tasetan dagokion kitapena egin dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

4.- JON ANDER LOIDI LEUNDA JAUNAK UGALDEA INDUSTRIALDEA 9, 1. PABILIOIAN BOX USURBIL IBILGAILUAK KONPONTZEKO EZARRI NAHI DUEN TAILER JARDUERARI ALDEKO INFORMEA EMATEA.

HZ.07/2014-0355

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, JON ANDER LOIDI LEUNDA jaunak Ugaldea industrialdea 9, 1. pabiloian BOX USURBIL ibilgailua konpontzeko ezarri nahi duen tailerraren osasun-txostena helarazi du. Osasun-txostena ALDEKOA da.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2014-0355

ESKATZAILEA: JON ANDER LOIDI LEUNDA

JARDUERA MOTA: BOX USURBIL ibilgailua konpontzeko tailerra

NON KOKATUA: Ugaldea industrialdea 9, 1.

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, ondoko txostena eman du:

ESKAERA: Ibilgailuen konponketaren jarduera proiektua
ESKATZAILEA: Jon Ander Loidi Leunda
JARDUERA: Ibilgailuen konponketa tailerra
KOKAPENA: Ugaldea industrialdea 9-1
ESP. ZENB.: HZ.07/2014-355

TXOSTENA

Ibilgailuak konpontzeko jarduera proiektua eta jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa aurkezten du, Jon Ander Loidi Leunda jaunak. Proiektua Unai Aizpurua arkitekto teknikoak sinatzen du eta Gipuzkoako aparejadore eta arkitekto teknikoaren zigorria darama.

Pabiloia azalera 316,60 m² da. 119,80 m²ko tarteko planta eraikia du eta guztira 439,50 m² osatzen ditu. Instalatuak potentzia indarra 11,40 kW da. Suaren karga 226 Mj/m² da. Gainontzeko ezaugarriak proiektuan jasotzen dira.

Pabiloia A-63 (C/SE) Ugaldea eremuan kokatzen da, eta eremuko ezaugarrien fitxak hurrengoak adierazten ditu:

EZAUGARRIEN FITXAK (TESTUAK). A-63 (C/SE) UGALDEA

- 1.- IRIZPIDE ETA HELBURUAK. Dagoen eraikuntza nagusiaren mantentzea eta egungo industriaren egokitzeko zabalpen xumeak, Eremuaren birurbanizazioa eta birgaikuntza. Sarbideen hobekuntza.
- 2.- AZALERAK. Arearen azalera: 47.963 m² Eraikuntzak okupatutako azalera: 28.340 m²



Usurbilgo Udala



- 3.- ERABILERAK. Erabilera industrialia izango da soilik. Ez dira dauden modulazio edo zatiketa gehiago onartuko.
- 4.- ERAIKUNTZEN BALDINTZAK. Egungoak.
- 5.- JARDUKETA. Hitzarmen-sistema ezartzen da.
- 6.- KUDEAKETA . Kudeaketa ekimen pribatua.
- 7.- ANTOLAMENDUA. Egungo eraikuntza nagusia finkatzen da eta ordenazioz kanpo deklaritzen da Eremurako ezaugarrien fitxen plano arabera adierazitako elementuak. Arau huen ordenazio zehaztua izaera orientagarria du, Eremuko Plan Bereziak zehaztu beharko duena. Lur esparru honetan burutuko den edozein eskuartzetan Lurraldearen antolamendurako artezpideetako xedapenak (8. Kapituluak, 6.8.8.5 Apartatua) eta Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzen Lurraldearen Arloko Planak ezartzen duen araudia (E.1. Apartatua Urpean gera daitezkeen zonei buruzko berariazko araudia) bete beharko dira. "Ertzen antolamendua: hidraulikari buruzko alderdiak, uholde guneak 1.5. Planoa"-n 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiko uholdeak izan daitezkeen eremuak eta Lehentasuneko Fluxu-Eremua agertzen dira, URA-Uraren Euskal Agentziak emandako uholde-arriskudun eremuen kartografiaren arabera, Usurbilgo Udalerrian Ori ibaiaren jokaera hidraulikoa ezagutzeko azterlanaren barruan egina, 2012ko urriko data duena. Kartografia honekin batera, Araudiko III. Eranskinean Agentzia honek darabiltzan "Lurra erabiltzeko irizpideak, urpean gelditzeko arrisku-mailaren arabera" jasotzen dira, gorde beharko direnak nahiz eta uren arloko araudiak dioena ere derrigorrez bete beharko den. Lur esparru honetan burutuko den edozein eskuartzetan Administrazio Hidraulikoaren baimena beharko da eta horretarako, azterketa hidraulikoa eta ingurumen arlokoa egin beharko dira aurrez horrela badagokio ibilguetako uraren joan-etorrian nolabaiteko aldaketaren bat eragin dezaketen jardueretan. Azterketa hidraulikoak, dagokionean, segurtasuna ziurtatzen duten neurriak eta ibaian gora edo behera dauden beste hirigintzako eremuetan jaso daitezken uholde-arriskuen eraginei erantzuteko neurriak zehaztu beharko ditu.
- 7,- PLANEAMENDU OSAGARRIA. Barne Erreformatarako Plan Berezia izapidetzea beharrezkoa izango da.

Jarduera onargarria da A-63 (C/SE) UGALDEA eremuan.

Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legearen 58. artikuluan xedatutako ondorioei buruz, aplikagarriak diren udal ordenantzen eta hirigintza arauen aldetik eragozpenik ez dago jarduera ezartzeko.

Espedientea **jendaurrean jarriko da** GAO-n iragarki bidez.

- Espedientea **Osasun Sailera bideratuko da**, txostena luzatu dezaten.
- JARDUERA SAILKATUA ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK: 3/1998 Ingurumen Legean ezarritakoari jarraituz, orain aurkezten dena **Jarduera Sailkatua** da. Hori dela-eta, Udalak ezar ditzakeen baldintzen kalterik gabe, **Neurri Zuzentzaileak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ezarriko ditu.**
- LUR KUTSATUAK 1/2005 LEGEA: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa



Usurbilgo Udala



garbitzeko, ezarritakoa bete beharrari dagokionez hurrengo adierazten da:

IHOBE S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak egindako EAeko lurzoruaren polutzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan, Usurbilgo Udalak jarduera ezarri nahi duen lurzoria ez dago inbentariatua edo dokumentuan sartuta lur kutsatuak izan daitezkeen arriskuarekin.

Goian aipatutakoei jarraiki, ALDEKO txostena idazten da, aipatutako baldintzak betetzen diren artean.

Usurbil, 2014ko abuztuak 25
Udal aparejadorea

Udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: JON ANDER LOIDI LEUNDA jaunak Ugaldea industrialdea 9, 1. pabiloian BOX USURBIL ibilgailua konpontzeko ezarri nahi duen tailerrari jarduerari ALDEKO INFORMEA EMATEA, proposaturiko kokamendua eta gainerako inguratzaileak, egungo Planifikazio Urbanistikoekin eta Otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurugiroaren Babeserako 3/1998 Legeak xedatutakoarekin, ados daudelako.

BIGARRENA: Era berean informatu, kokalekuan eta bere inguruetan efektu gehigarriak sor lezakeen antzeko jarduerarik ez dela.

HIRUGARRENA: Erabakia eta Espediente osoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera bidali dadila, Neurri Zuzentzaileak ezar ditzan.

5.- AISIALDIKO BEGIRALE EDO ZUZENDARI IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAT DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Ikusirik

2014ko ekainaren 6an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013/14 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzat diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren. Ekainaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean diru-laguntza deialdiaren akats zuzenketa egin zen. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 16an hasi eta ekainaren 27an amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, guztira 5 eskaera jaso ziren.

Hori horrela, uztailaren 21ean egindako Kultura, Euskara eta Gazteria Batzordean diru-laguntza kopuruen proposamenaren berri eman zen.



Usurbilgo Udala



Uztailaren 23an egindako Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak ebazpen-proposamena egin zuen eta, ondoren, interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu eta, ondorioz, erabakia behin betikotzat hartzea dagokio.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2012/13 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzat diru-laguntza oinarriak (GAO, 2014/06/06) eta oinarri hauen zuzenketa (GAO 2014/06/12)

Guzti hau kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2013/14 aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzat diru-laguntza kopuru hauek onartzea behin betikoz:

Izen-abizenak	Diru-laguntza
BEGIRALE IKASTAROA	
Zuriñe Lasarte Encinas (0165 esp. zk.)	250 €
Olatz Lizaso Egileta (0178 esp. zk.)	250 €
Haritz Arruti Aizpurua (0179 esp. zk.)	250 €
ZUZENDARI IKASTAROA	
Ander Izeta Goenaga (0181 esp. zk.)	150 €
Manex Torreal dai Gorriti (0182 esp.zk.)	150 €
GUZTIRA	1050 €

Bigarrena: Diru-laguntzen ordainketa egitea.



Usurbilgo Udala



Hirugarrena: Onuradunak udalarekin zorren bat duen kasuetan, udalak egin beharreko ordainketarekin konpentsatuko da.

Laugarrena: Interesdunak 2016eko uztailaren 30a baino lehenago titulua eskuratu izanaren agiria ekarri behar du udalera. Titulua udalera ekartzen ez bada, udalari jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko zaio.

Bosgarrena: Interesatu bakoitzari erabaki-proposamenaren jakinarazpen individualizatua egitea.

Seigarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1 4400 480 455 10 01 2014 (A 266/2014)

Zazpigarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea.

6.- 2013/2014 IKASTURTEAN EUSKARA IKASI DUTENENTZAKO DIRU-LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Ikusirik

2014ko ekainaren 6an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013/14 ikasturtean euskara ikasi dutenek diru-laguntzak eskatzeko deialdia argitaratu zen. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 25ean hasi eta uztailaren 9an amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, guztira 41 eskaera jaso ziren.

Uztailaren 23an egindako Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak diru-laguntzen ebazpen-proposamena egin zuen eta, ondoren, interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko.

Epe horretan 194 espediente zenbakiko interesatuak alegazio bat aurkeztu du.

Udal euskara teknikariak diru-laguntzei buruzko behin betiko erabakiari buruzko txostena egin du.

194. espediente zenbakiko alegazioa dela eta, euskara teknikariak egindako txostenak diotenaren arabera, udalak egiaztatu du diru-laguntzaren izendapena bideratzerakoan akats bat gertatu zela, izan ere, interesatuak egindako ikasketak kontuan hartuta, %100ko diru-laguntza jasotzea dagokio, %80 ordez.

Bestalde, 215 espedienteko interesatuari udako ikastarorako 144 euroko diru-laguntza izendatu zitzaion. Interesatuak ez du ikastarorik egin. Honenbestez, ez dagokio diru-laguntzarik.

212 espedienteko interesatuak udako ikastaroari dagozkion agiriak ekarri ditu. Honenbestez, izendatutako diru-laguntza jasotzea dagokio.

216 espedienteko interesatuak udalarekin zuen zorra ordaindu du.



Usurbilgo Udala



Azkenik 204 espedienteko interesatuak ez du frogatu lan historialaren bidez langabetua denik. Honenbestez, %80ko diru-laguntza jaso beharrean, %60ko diru-laguntza jasotzea dagokio.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2012/13 ikasturtean euskara ikasi dutenek diru-laguntzak eskatzeko deialdia (GAO, 2014/06/06)

Guzti hau kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2013/14 euskara ikasi dutenentzako diru-laguntza kopuru hauek onartzea behin betikoz:


LANGABETUAK EZ DIREN EUSKARA IKASLEAK **EUSKARA MAILA BAXUAN ARITU DIRENAK (%80a)**

Izen abizenak	Diru-laguntza	Oharrak
Carmen Mingo Otaegui (176)	339,20 €	
Carmen Mendez Arredondo (175)	414,40 €	
Kontxi Manso Perez (173)	356,80 €	
Carmina Garcia de Paz (174)	80,00 €	
Ana M ^a Godoy Nuez (169)	368,00 €	
Placeres Lorenzo Manzano (185)	356,80 €	
Ana Maria Arostegi Usabiaga (189)	339,20 €	
Miren Jaione Taberna Arruti (191)	481,60 €	
Eva Lázaro Arruti (192)	356,80 €	
Carlos Delgado Hernandez (199)	339,20 €	
Feli Holgado Harto (203)	248,80 €	
Ines Martínez Crespo (200)	339,20 €	
Juan Carlos Vega Turnes (205)	481,60 €	
Julian Godinez Ramirez (209)	414,40 €	
Moraysys Silva Rodriguez (201)	480,00 €	
Arantxa Rabano Rubio (184)	414,40	
Eva Tames Ibarguren (193)	457,60 €	
Jorge Sanchez Dolado (206)	457,60 €	
Ana Belen Palacios Martin (208)	414,40 €	
Ander Ayuso Casanova (213)	253,60 €	
Guztira	7393,6 €	

LANGABETUAK EZ DIREN EUSKARA IKASLEAK **EUSKARA MAILA ALTUAN ARITU DIRENAK (%60a)**



Usurbilgo Udala



Izen-abizenak	Diru-laguntza	Oharrak
Ana Urdangarin Salsamendi (167)	169,20 €	
Mikel Errekondo Arzallus (172)	361,20 €	
Mari Mar Estella Arranz (171)	351,00 €	
Gema Molina Cuesta (183)	271,20 €	
Jayone Orotegui Uria (198)	361,20 €	
Aitor Eizaguirre Mugica (210)	271,20 €	
Shandra Martínez Castillo (190)	401,22 €	
Rocio Caceres Povedano (204)	267,60 €	Ez du lan historialaren bidez langabetua dela frogatu. %60ko diru-laguntza dagokio.
Carlos Raul Blazquez Martínez (211)	267,00 €	
Guztira	2720,82 €	

LANGABETUAK DIREN EUSKARA IKASLEAK
EUSKARA MAILA BAXUAN ARITU DIRENAK (%100)

Izen-abizenak	Diru-laguntza	Oharrak
Karmele Liceaga Alcantara (177)	446,00 €	
Nahia Aramburu Enetarriaga (170)	334,00 €	
Carles del Rio Martínez (188)	446,00 €	
Blas Añorga Navarro (195)	518,00 €	
Katia Izquierdo Santos (207)	406,80 €	
Mikel Delgado Caminero (202)	545,00 €	
Paki Navarro Guadix (194)	409,00 €	Egindako ikasketei %100eko diru-laguntza dagokie
Karmele Liceaga Alcantara (212)	54,00 €	
Guztira	3158,8 €	

LANGABETUAK DIREN EUSKARA IKASLEAK
EUSKARA MAILA ALTUAN ARITU DIRENAK (%80a)

Izen-abizenak	Diru-laguntza	Oharrak
Maialen Heras Rodriguez (187)	356,80 €	
Aitor Bautista Oliva (214)	144,00 €	
Aitor Bautista Oliva (215)	0,00 €	Ez du udako ikastarorik egin lanean hasi delako.



Usurbilgo Udala



Eneko Kerejeta Yarza (216)	356,80 €	Udalarekin 133,03 euroko zorra zuen. Ordaindu du.
GUZTIRA	857,6 €	

GUZTIRA 14.130,82 €

Bigarrena: Diru-laguntzen ordainketa egitea.

Hirugarrena: Onuradunak udalarekin zorren bat duen kasuetan, udalak egin beharreko ordainketarekin konpentsatuko da.

Laugarrena: Interesatu bakoitzari erabaki-proposamenaren jakinarazpen indibidualizatua egitea.

Bosgarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.4200.480.455.10.03 2014 (A264/2014)

Sigarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea, ordainketa egiteko orria erantsiz

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:10etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.